

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gazteluen eta Gotorlekuen Ibilbidean ezkutaturiko altxorrak aurkitzeko joko berrian ari ahal izango dira familiak

Ibilbidearen 19 mugarrietan 16 kutxa kamuflatu ezkutatu dira, altxorra aurkitzeko deszifratu beharreko arrastoen jokoak dituztenak.

Jueves, 07 de noviembre de 2013

Nafarroako Gazteluen eta Gotorlekuen Ibilbidea turismoaren aldetik dinamizatzeko, Nafarroako Turismoa "Geocaching" izeneko nazioarteko ekimenera gehitu da. Jokoa altxorrak GPS koordinatuen bidez bilatzean datza, eta kirola, kultura eta argazkigintza maite dutenentzat da bereziki. Aproposa da haurrak dituzten familientzat ere.

Hala, ibilbidearen 19 mugarrietan 16 kutxa kamuflatu ezkutatu dira, altxorra aurkitzeko deszifratu beharreko arrastoen jokoak dituztenak. Kutxen barruan turismoa sustatzeko objektuak eta Gazteluen eta Gotorlekuen Ibilbidearen liburuxka daude. Beste 3 mugarrietan, bata bestearekin lot daitezkeen arrastodun hainbat kutxa daude.

www.geocaching.com webgunean kutxa kamuflatuak eta ibilbideko baliabideei buruzko informazioa agertzen da.

Geocaching GPS bidez ezkutaturiko altxorrak bilatzean datzan nazioarteko joko bat da. Munduan 2.264.448 geocache edo altxor aktibo daude eta 6 milioi geocaching-jokalari edo altxor-bilatzaile baino gehiago.

Jokoaren arauak xumeak dira: izena eman behar da eta www.geocaching.com web-orrian jokalaria gisa kontu bat sortuta izan. Doan deskarga daitezke kutxak bilatzeko koordinatuak, beraz, nahi denean has daitezke altxorra bilatzen. Nafarroako turismoa sustatzeko objektuak eta ibilbidearen liburuxkaz gain, parte-hartzaileek "hiru zomorro bidaiariak" aurkitu ahal izango dituzte, zomorro baten irudia duten txapak. Horiei zeregin bat burutzen lagundu behar zaie: adibidez, zomorro batek munduko gazteluak ikusten laguntzeko eska dezake. Txapa Loira inguruko gazteluak ikustera joango den altxor-bilatzaile batek aurkitzen badu,



Bilduma egiteko baliabideak txanponaren irudia, Ibilbidearen logotipoarekin.

adibidez, bertatik hartu eta hurrengo tokian (Frantzian) utziko du, zomorroari egitekoa burutzen laguntzeko.

Altxorra bilatzean, web-orrian hala adierazi beharko da. Parte hartzeko beharrezkoa da mendirako GPS bat izatea edo mugikorretarako "Geocaching" aplikazioa deskargatzea.

Ibilbide osoa amaitzean, parte-hartzaileek "Gazteluen konkistatzailea"ren egiaztagiria lortzeko jarraibideak jasoko dituzte. Gainera, Ibilbidea amaitzen duten lehen 150 altxor-bilatzaileek Ibilbidearen logotipoa duen bildumarako txanpon bat ere jasoko dut.